

Saio honetan, klima aldaketari buruzko azken txostenak errebasatuko dira, gerra, energiaren krisia eta fenomeno hori arintzeko gizarte eskari handia ardatz dituen testuinguru batean.



### **Antonio Cerrillo Jodar**

Kazetaria, ingurumen-erredaktorea

Kazetaria, ingurumeneko erredaktorea La Vanguardia egunkarian, eta Emergencia climática. Escenarios del calentamiento y sus efectos en España (librosdevanguardia), Ártico: tras las huellas del cambio climático eta Periodismo ambiental: crónica de un cambio cultural en España liburuen egilea. La Vanguardia-ko "Canal Natural" atalaren bultzatzailea. Ingurumen Kazetaritzako Sari Nazionala jaso du. Ingurumen Kazetaritzako Sari Nazionala. BBVA Fundazioaren Biodibertsitatearen Kontserbazioaren XV. edizioaren irabazlea, Ezagutzaren Zabalkundea eta Sentsibilizazioa kategorian.

Klima aldaketari buruzko azken txostenek berretsi egiten dute premiazkoa dela neurriak hartzea, tenperatura Parisko Akordioan ezarritako atalasetik gora igotzea saihesteko. Hala ere, aurrerapen faltak eraginda, tenperatura askoz gehiago ari da igotzen. Politikarik gabe, edo egungo politikek porrot egiten badute, planetako tenperatura 2,6°C inguru igoko da mende amaierarako. Zer neurri hartu behar dira? Zer ari dira egiten GKEak eta justizia klimatikoaren aldeko mugimendua? Zer eginkizun du informazioak? Saio honetan, NBERen klimari buruzko azken konferentzien emaitzak baloratuko dira, aztertuko da nola islatzen diren emaitza horiek Europako eta Espainiako politketan, eta ikusiko da espainiarrak gero argiago dutela neurriak hartu behar direla.

Espainiarrek gero eta garbiago dute klima aldaketaren ondorioek banan-banan eragiten dietela, eta jada ez dela gizarteari modu generikoan eragiten dion gai urrun eta nonahiko bat.

"Distantzia psikologikoa murrizten ari da", gero eta gehiago, fenomeno horren mehatxu potentzialaren aurrean.

Eta hori funtsezkoa da; izan ere, herritarrek onartzen badute klimaren krisia benetako mehatxua dela, errazago eskatuko dituzte erantzunak.

Herritarrek neurri eta politika aktiboagoak nahi dituzte arlo horretan, eta antzematen da espainiarrek prestasun handiagoa dutela deskarbonizazio ekintzak abiarazteko, baita mugikortasunaren eremuan ere. Eta horrek guztiak substratu sendo bat du: Espainian, hamar pertsonatik bederatzik uste dute klima aldaketa existitzen dela. Bien bitartean, arrisku bat dago: gerra kulturalak identitate politikorako faktore gisa erabiltzea klima aldaketa.

Aldagai ideologikoa da gehien diskriminatzen duena, eta posizioak gehien markatzen dituena. Sektore jakin batzuek klimaren ideologia erabiltzen badute argudio gisa, horrek oztopatu egingo du inkestek islatzen duten beldurra gainditzeko ekintza kolektiboa.



## **Programa**

**18:00 - 19:00**

“Klimaren krisia, oparotasunaren paradigma berria eta gizarte mugimenduen parte hartzea“

**Antonio Cerrillo Jodar** | La Vanguardia - Kazetaria, ingurumen-erredaktorea

**Eva Caballero** kazetariak hizlariarekin elkarrizketa izango du hitzaldia amaitutakoan